



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
18/12/12

## **2019ko Bizkaiko aurrekontuek euren eztabaideagaz jarraituko dabe, Batzar Nagusietako Osokoak EH Bilduk, Podemosek eta Talde Popularrak aurkeztu dituen Osotasunezko Zuzenketa-eskeak atzera bota ostean**

Gaur goizean Gernikan egin dan Bizkaiko Batzar Nagusien Osokoak atzera bota ditu EH Bilduk, Podemosek eta Talde Popularrak lurralde historikoko Aurrekontuen Foru Arau Proiektuaren aurrean aurkeztu dituen osotasunezko zuzenketa-eskeak.

Bozketa bakarrean, Batzarrek atzera bota ditue hiru ekimenak, zuzenketa-eskeak aurkeztu dituen taldeen aldeko 18 botoakaz eta ganerakoan kontrako 30akaz (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Mistoak).

Seguruenez Batzar Nagusietako Bilboko Egoitzan abenduaren 17, 18, 19 eta 20an egingo diran Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeek, Batzarretako taldeek aurkeztutako 676 zuzenketa-eskeak eztabaidatu beharko ditue. Gobernua eusten daben talde biek 8 zuzenketa-eske defendiduko ditue. EH Bilduk gauza bera egingo dau bere 215 proposamenakaz, Podemos Bizkaiak 241 aurkeztu ditu, Talde Popularrak 137 eta Talde Mistoak 75.

Guztira, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak osokoaren hasieran aurkeztu dauen 2019ko lurralderako aurrekontu proiektuak 8.216,7 milioi euro hartzen ditu, 2018an baino %5,2 gehiago, eta horreetatik 1.253,3 milioi sailek erabili daikiena da. Batzarretako taldeen arteko eztabaidea hasi aurretik, Iruarrizagak proiektua aitatu dau, “jarduera ekonomiko eta enplegu gehiago” izango dauen Bizkaia lortzeko dagola diseinauta, “modernoagoa eta eraginkorragoa”, “lurraldeari jagokonez kohesionatuagoa” eta “personei, laguntza gehien behar dabenei, batez be, lagunduko deusena”.

Kudeaketa Propioko Aurrekontuak 1.643.660.299 euro hartzen ditu, hau da, aurreko ekitaldian baino %2,6 gehiago. Hori dala eta, Bizkaiko Foru Aldundiak 41,5 milioi euro gehiago izango ditu bere jarduerara aurrera eroateko. Gauza bera gertetan da sailek erabili daikienagaz, %4,9 egin dauelako gora, 1.253.278.490 eurora heldu arte, 2018an baino 58,6 milioi gehiago.

Esku-hartzeen txandea Javier Ruiz Talde Popularraren bozeroaleak zabaldu dau. Osotasuneko zuzenketa-eskea arrazoi bitan oinarritu dau: “proiektuaren eukiagaz ados ez egotea”, eta “testuinguru eta egoera politikoa”. Harmailatik, Ruizek bere eretziz “oso loratua” eta “hauteskunderi begira dagon” aurrekontu proiektua kritikau dau. Ganera, “oso sinisgarriak ez diran” diru-sarrerak eta “beste aurrekontu batzuen erreprodukzino ia mimetikoa” erakusten daben gastuak erakusten dituala esan dau.

Podemos taldea ordeztuz, Eneritz de Madariaga bozeroaleak ezezkoa emon deutse “goi maila ekonomiko pribilegiuaren lehentasunak Bizkaiko gizarte gehienaren lehentasunen,

gizarte arloko justiziaren, bardintasunaren, jasangarritasunaren eta Bizkaiaren gizarte eta lurralde kohesinoaren aurrean jarten dituen” aurrekontuei.

Batzarretako Podemos taldeak “eredu produktiboaren goitik beherako aldaketea” eskatu dau Bizkaiarako. Horretarako, beste puntu batzuen artean, honeen aldeko apustua egiten dau: “lehen sektorea indartzea, elikagaiei jagoken burujabetasuna eta bioaniztasuna”; “nekazaritza eta abeltzaintza jasangarriari” eta “emakumeak eta gazteak sektorean sartzeari” laguntzeko neurriak; “EIC energia barriztagarrietarako polo moduan” ikusiko dauen Energia Trantsiziorako 2019 – 2022 Plana egitea; “ingurumen arloko ereduaren aldaketea”; eta “garraio publikoaren aldeko apustua”.

Arantza Urkaregik, EH Bilduren izenean, “Kudeaketa Propioko Aurrekontuaren %1 bardintasunera eta %0,7 lankidetzara bideratzeko konpromisoa beteten ez daben” aurrekontuak dirala azpimarratu dau. Batzordekideak, hainbat proiektutan, bidegorrietan, Zaintzaileen Estatutuan edo Enkarterriko Bizibarritzeko Planean, besteak beste, dagon “gardentasun faltea” nabarmendu dau.

Ezkerralderako eta Meatzalderako talka planaren faltea ikusita, Urkaregik “eskualdeen garapena gitxi bultzatzen dala” aurpegiatu deutso Aldundiari. Horrez gain, kritikau egin dau hainbat azpiegiturek eragin daben gastua, Supersur izenekoak eta Gerediaga-Elorrio lotuneak, besteak beste, bere eretziz “Bizkaiko gizartearen etorkizuna hipoteketan dabelako”.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko kide bakarra osotasunezko zuzenketa-eskeetatik aparte geratu da eta itaun bat bideratu deutse Batzarrei: “Bizkaia hobeto egongo litzateke aurrekontuak itzuliko bagenduz? Nik ezetz uste dot”. Aldecoaren eretziz, “aurrekontuak hobetu daitekezan arren”, “egokiagoa da eztabaidaren esfortzua zuzenketa-eske partzialetan zentratea”. Talde Mistoaren bozeroalea Batzarretako talde guztiei zuzendu jake bigarren esku-hartzean, enpresek egiten daben beharra defendiduteko: “Bizkaiak etorkizuna eukiko dau enpresa egiturea eukiten jarraitzen badau”.

Ekain Rico izan da Euskal Sozialistak taldearen jarrera defendidu dauena. Bere eretziz, proiektuan azpimarragarria da hainbat puntutan herritarren agendaren islea dala, enpleguan, mendekotasunean, iruzur fiskalaren kontrako burrukan eta kalidadezko zerbitzu publikoetan, hain zuzen be. Ricok kritikau egin ditu EH Bilduren, Podemosen eta Talde Popularraren osotasunezko zuzenketa-eskeak, zuzenketa-eske horreek “ez dabelako Bizkaian dagon eredu ekonomikoaren eta sozialaren eredu alternatiborik planteetan”.

Eta gobernu taldeak egin dauen proposamenaren alde, “erakundeek herritarrek daukiezan arazoei aurre egiteko funtsezko tresna dala” azpimarratu dau eta, ganera, “inbertsino publikoaren itzulerea berresten dauela eta jentearen bizimodua hobetzeko, lurraldearen kohesinorako, jarduera ekonomikorako eta enplegurako daukagun konpromisoari erantzuten deusola”.

Bukatzeko, Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, Jon Andoni Atutxak azpimarratu dau Foru Gobernuaren proiektuak bere apustua indartzen dauela, hiru helburugaz: “enplegua bultzatzea, personen etorkizuna bermatzeko”; “lurraldearen jarduera ekonomikoan sakontzea, personentzat onuragarria izan daiten”; eta “zerbitzu publikoak indartzea, personen bizitza kalidadea hobetzeko”.

Bozeroale jeltzaleak azpimarratu dau, baita be, Bizkaiko Foru Aldundiak inoiz euki dauen aurrekontu proiektu altuena dala; bere berbetan, igoera hori “personen zerbitzura” jarten da. “Kalidadezko gizarte zerbitzuak behar dituen personak, ekin gura dabenek, administrazio modernoa, arina, XXI. mendekoa, gura dabenek”, zehaztu dau. Horrez gain, Atutxak esan dau EH Bilduk, Podemos eta Talde Popularrak aurrekontuak baztertzeko egin dituen eskariek “ez dituela bizkaitarron bizitza kalitatea hobetzen”, “urrundu baino ez gaitue egiten”.

NOTA DE PRENSA  
12/12/18

## **Los presupuestos de Bizkaia 2019 seguirán su debate en Comisión tras rechazar el Pleno de las Juntas Generales las Enmiendas a la Totalidad de EH Bildu, Podemos y Grupo Popular**

El Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia, celebrado esta mañana en Gernika, ha rechazado las enmiendas a la totalidad del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos para este territorio histórico, que habían sido presentadas por los grupos junteros de EH Bildu, Podemos y Grupo Popular.

En una única votación, la cámara ha rechazado las tres iniciativas, con los 18 votos a favor de los grupos impulsores y los 30 en contra del resto (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, y Grupo Mixto).

Las Comisiones de Economía y Hacienda previsiblemente programadas para los días 17, 18, 19 y 20 de diciembre en la sede de Bilbao de las Juntas Generales deberán debatir las 676 enmiendas parciales presentadas por los diferentes grupos. Las dos formaciones que apoyan el actual Gobierno de la Diputación defenderán un total de 8 enmiendas; EH Bildu hará lo propio con sus 215 propuestas, mientras que Podemos Bizkaia ha presentado un total de 241, el grupo Popular 137, y el Grupo Mixto 75.

En total, el proyecto de presupuesto del territorio para 2019, presentado por el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, al inicio del pleno, suma 8.216,7 millones de euros, un 5,2% más que en 2018, de los que 1.253,3 millones corresponden al disponible departamental. Antes de iniciarse el debate entre los grupos junteros, Iruarrizaga se ha referido al proyecto argumentando que está diseñado para lograr una Bizkaia “con más actividad económica y empleo”; “más moderna y eficiente”; “más cohesionada territorialmente”; y “que apoya a las personas, especialmente a las que más apoyo necesitan”.

El Presupuesto de Gestión Propia suma 1.643.660.299 euros, cantidad que se ha incrementado en un 2,6 % con respecto al ejercicio anterior, por lo que la Diputación Foral de Bizkaia dispondrá de 41,5 millones de euros más para llevar a cabo su actividad. Lo mismo ocurre con el Disponible Departamental, que sube en un 4,9 %, y se sitúa en 1.253.278.490 euros, 58,6 millones superior al de 2018.

El turno de intervenciones se ha iniciado con la intervención de Javier Ruiz, portavoz del Grupo Popular, quien ha sustanciado su enmienda a la totalidad en dos motivos: “desacuerdo con el contenido del proyecto”, y “contexto y situación política”. Desde la tribuna, Ruiz ha criticado un proyecto de presupuestos “muy florido” y “diseñado en clave electoral”, que además presenta unos ingresos “poco creíbles” y unos gastos que representan “una reproducción casi mimética de otros presupuestos”.

En representación del grupo Podemos, su apoderada Eneritz de Madariaga, ha rechazado unos presupuestos que “anteponen las prioridades de las élites económicas y privilegiadas a las de la mayoría de la sociedad vizcaína, a la justicia social, a la igualdad, a la sostenibilidad y la cohesión social y territorial de Bizkaia”.

El grupo juntero Podemos ha reclamado “un cambio radical de modelo productivo para Bizkaia”. Para ello, apuesta por, entre otras cosas, el “fortalecimiento del sector primario, la soberanía alimentaria y la biodiversidad”; “medidas de apoyo a agricultura y ganadería sostenible”, así como “la incorporación de mujeres y jóvenes al sector”; la configuración de un Plan de transición energética 2019 – 2022, “que apueste por el EIC como polo de energías renovables”; “un cambio en el modelo medioambiental”; y una “apuesta por el transporte público”.

Por su parte, y en nombre de EH Bildu, Arantza Urkaregi, ha puesto el acento en unos presupuestos que “incumplen el compromiso adquirido de dedicar un 1% del Presupuesto de Gestión propia a políticas de igualdad”, así como el 0,7% a cooperación. La apoderada también ha puesto de manifiesto una “falta de transparencia” en proyectos como bidegorris, Estatuto de las Personas Cuidadoras o el Plan de Estímulo de Enkarterri.

Ante la falta de un plan de choque para Ezkerraldea y Meatzaldea, Urkaregi ha reprochado a la Diputación el “poco impulso al desarrollo comarcal”. Además, ha criticado el gasto derivado de infraestructuras como la Supersur y el enlace Gerediaga-Elorrio, que a su juicio “hipotecan el futuro de la sociedad vizcaína”.

Arturo Aldecoa, único integrante del Grupo Mixto, se ha desmarcado de las enmiendas a la totalidad lanzando una pregunta a la Cámara: “¿Estaría mejor Bizkaia si devolviéramos los presupuestos? Yo creo que no”. Para Aldecoa, a pesar de que “se puede mejorar el presupuestos”, resulta “más útil centrar el esfuerzo del debate en las enmiendas parciales”. El portavoz del Grupo Mixto se ha dirigido a todos los grupos junteros en una segunda intervención para defender el papel de las empresas: “Bizkaia tendrá futuro si sigue teniendo tejido empresarial”.

Ekain Rico ha sido el encargado de defender la postura del grupo Socialistas Vascos. A su juicio el proyecto destaca por ser el reflejo de la agenda ciudadana en materia de empleo, de dependencia, de lucha contra el fraude fiscal y de servicios públicos de calidad. Rico ha descalificado las enmiendas a la totalidad de EH Bildu, Podemos y Grupo Popular señalando que éstas “no plantean un modelo económico y social vizcaíno alternativo al que existe en Bizkaia”.

Y a favor de la propuesta del equipo de gobierno ha subrayado que se trata de “una herramienta clave para que las instituciones hagan frente a los problemas que acucian a los ciudadanos”, y que, además “refrendan la vuelta a la inversión pública y responden a nuestro compromiso por mejorar la vida de la gente, la cohesión del territorio, la actividad económica y el empleo”.

Finalmente, por parte del grupo Nacionalistas Vascos, Jon Andoni Atutxa ha insistido en que el proyecto del Gobierno Foral refuerza su apuesta con tres objetivos: “impulsar el empleo para garantizar el futuro de las personas”; “incidir en la actividad económica del territorio para que revierta en las personas”; y “fortalecer los servicios públicos para mejorar la calidad de vida de las personas”.

El portavoz jeltzale ha subrayado también que éste se trata del proyecto de presupuestos más elevado con el que ha contado la Diputación Foral de Bizkaia; un incremento que, según ha manifestado, se pone “al servicio de las personas”. “Personas que necesitan de unos servicios sociales de calidad, personas que necesitan de un empleo de calidad,

personas, que quieren emprender, personas, que quieren una administración moderna, ágil, del siglo XXI”, ha detallado. Atutxa ha señalado asimismo que las peticiones de retirada de los presupuestos por parte de EH Bildu, Podemos y Grupo Popular “no mejoran la calidad de vida de los bizkainos y bizkainas”, sino que “nos alejan”.